

El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.  
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.

### Iñigo Urkullu

#### Presentación de candidaturas BEC

2023-2-12

Alderdikideok egun on! Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta erakusten duzuen konpromisoagatik! Duela lau urte hemen ginen, egoera berean, genituen hautagaiei gure babesa eskaintzen. Momentu hartan gainera etorriko zitzaigunaren arrastorik ere ez genuen. Izan ere, COVID-19 deitutako birus batek gure errealitatea hankaz gora jarri zuen handik hilabete batzuetara. Oso urte zailak bizi izan ditugu gizarte bezala. Pertsona gehiegi bidean geratu da eta beste askok pandemiak ekarri dizkigun bestelako ondorioak pairatzen jarraitzen dute. Ondoren, duela ia urte bete, Errusiak Ukraina inbaditu zuen. Horrek ere, ondorio latzak ekarri ditu: hildako pertsonak eta ihes egin behar izan duten familiak, lehenik eta behin. Euren herrialdeetatik korrika ateratako pertsona horiek babesa aurkitu dute gure herrian. Izan ere, euskal erakundeok, denok batera, lehen arreta eta funtsezko laguntza eskaini diegu. Gure egin beharra da. Bigarrenik, pandemiak eta gerrak sortutako ondorio ekonomikoei ere erantzunak aurkitu behar izan dizkiegu. Gure egin beharra zen eta egin dugu.

Pandemia... Gerra... Ez geunden horretarako prestatuta. Ondo dakizue zuek guztiok hori. Ez gure herrian ez eta mundu guztian ere. Lan eskerga egin dugu, guztion artean, herri honen elkartasun sena erakutsiz. Zuen burua behin eta berriz berrasmatu behar izan duzue. Zenituzten baliabideei zukua atera eta Euskadiren zerbitzura jarri dituzue. Beti hor. Beti gertu. Gizarteari nola lagundu zuen buruari etengabe galdetuz. Erantzunak adostuz eta aurkituz. Badakit. Bakarrik ere sentitu zarete zenbaitetan... Zama handia izan duzue zuen gainean... Baina, gaur, hemen, egin duzuen lan hori biziki gorai patzen dut... Zoritxararen aurrean goratu zarete eta erantzukizun osoz aurrera egin duzue... Zuen lana itzela izan da... Garai zailenetan ere beti gertu... entzuten... adosten... laguntzen... Beti lanerako prest... Beti laguntza eskaintzeko prest... Beti aurrera egiteko prest.

Nos ha tocado vivir una situación realmente difícil, imprevista: afrontar las afecciones de una pandemia y de una injusta guerra y hacer frente a las consecuencias sociales y económicas de todo ello en nuestra vida cotidiana... El día que juramos el cargo jamás habríamos imaginado una situación tan dura y compleja. Hemos tenido problemas... sí... Hemos aprendido lecciones... también... Nos hemos unido... Hemos asumido la responsabilidad, demostrando fuerza y entereza ante la adversidad. Sé que, en algunos momentos, habéis sentido la soledad... Soy consciente... Pero os voy a decir una cosa: ¡lo habéis hecho bien! Tenemos que continuar por este camino... sin caer en la autocomplacencia. Todas las instituciones trabajando de manera conjunta... Colaborando con la iniciativa privada y el tercer sector social... No hemos dejado a nadie atrás... Hemos activado planes para apoyar a los sectores

económicos, sociales, culturales... que también han realizado un tremendo esfuerzo por mantener su actividad y el empleo. Es nuestro ideario, es nuestro compromiso, es nuestra razón de ser... Todas y todos remando en la misma dirección. Todo por el bien de nuestro pueblo.

Tenemos un compromiso con unos objetivos claros...Tenemos un programa y un rumbo claro. Nos fijamos como reto permanente:

Primero: poner a las personas en el centro de nuestras políticas, dando máxima prioridad al Sistema Educativo y a la Salud, así como a las Políticas Sociales y a nuestra Juventud. Tenemos que profundizar en el cambio de paradigma en nuestra sociedad, atendiendo, por ejemplo, al reto demográfico; trabajando conjuntamente también el ámbito socio-sanitario, la igualdad, las políticas sociales y culturales.

Segundo: el empleo y la reactivación económica como ejes centrales de nuestras actuaciones. El sostenimiento de los empleos; La lucha contra la precariedad y temporalidad también desde la perspectiva de género; La apuesta por el empleo de calidad; La formación y aprendizaje a lo largo de la vida; La adecuación a cada realidad socio-económica y geográfica... requieren de nuestra coordinación interinstitucional.

Hirugarrena: trantsizio ekonomiko eta klimatikoan aurrerapauso eraginkorrek ematea, ingurumenaren aldetik iraunkorra eta bidezkoa den hazkundera bilatuz denon artean, 2030 Agendarekin aurrera eginez Giza-garapen Jasangarriaren Helburuekin konprometituz.

Laugarrena: autogobernua helburu ukaezina izanik, hori egiazki lortzeko urrats sendoak ematen jarraitzea... Euskadi, Herria, munduan kokatzen jarraituz. Euskadirentzat estrategia argia eta partekatua dugu. Eredu bat dugu... Auzolana zer den ondo dakigu eta herrigintzan sinesten dugu. Guztion artean aurrera egiten ari gara... Pandemia eta gerraren ondorioak lezio aurreratua izan dira gu guztiontzako... Balio dezala esperientzia horrek etorkizuneko arazo ezezagun eta aurreikusi ezinei aurre egiteko. Gaur elkarrekin gaude bide horri jarraipena emateko... Herrigintzan aurrera egiteko!

Un ejemplo de colaboración: ¡Programa Berpiztu! Otro ejemplo: ¡Plan de Inversiones Estratégicas! Tenemos muchos más: Zonas de Actuación Prioritaria, Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible... Pacto Social Vasco para la Migración y por la Igualdad... Medidas de alivio fiscal como consecuencia de la guerra de Ucrania... Estrategias... Inversiones... Objetivos compartidos... CONSENSO, COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA... Pero no es suficiente... tenemos que seguir avanzando... Siempre mirando a Europa... Juntas, juntos... Un ejemplo de colaboración: Euroregión junto con Nafarroa e Iparralde. Otro ejemplo: Impulso del Arco Atlántico. Compartimos un mismo proyecto de país ante Europa... Euskadi Nación Europea! Es nuestro presente y es nuestro futuro.

Aipatutako guztia egin dugu, baina ez gara horretan geratzen. Hobetzen jarraitu behar dugu. Pertsonen kezkak entzun behar ditugu... Euren eguneroko arazoei irtenbideak ematen saiatu. Beti haien alboan. Herritarra gara. Herriaren parte gara. Herria dugu ardatz.

Desde el primer día hasta el último, todos son días hábiles para lograr nuestro objetivo: Debemos mejorar la calidad de vida de cada persona... Ayudar a construir un pueblo, ciudad o territorio mejor... Siendo ejemplares en nuestro trabajo y gestión... Es nuestro compromiso... Es nuestra obligación... Es lo que la sociedad vasca nos demanda y es lo que le debemos... No lo olvidemos nunca.

Pertsonen zerbitzura gaude... Hori da gure zeregina, gure izateko arrazoa... Bide horretan diharduzuenoi... gure eskerrak eta aitortza... Unai, Markel, Gorka, Pedro... Baita zuekin batera, gurekin batera, bidea egin duzuen alkate, zinegotzi, batzarkide guztioi... Egin duzuen lanari esker herri hobea batean bizi gara denok... Hori da agintari bati esan dakioken hoberena. Eskerrik asko bihotz bihotzez! Beatriz Sailburua, Ana, Irma, Elixabete, Eider... lehen mailako erakundeak lideratzeko bidea hartu duzue. A ze erakusketa eredugarria gizonetzko emakumearen errola aitortzeko Emakume Abertzale Batzaren mendeurrenean! Katea ez da eten! Eutsi erronkari!

Eta zuekin batera, gaur ere, ongi etorria ematen dizuegu ardua berriak hartzeko urratsa eman duzuen guztioi... Eskerrik asko zuen prestutasunagatik... Badakit zeregin berriek nolabaiteko errespetu edo 'bertigoa' emango dizuetela... Baina lasai, orain arte izan den bezala, batera arituko gara... Zuen konpromisoa gurea guztiona ere bada... Elkarrekin egingo dugu bidea... Herri honek gure hoberena ematea merezi duelako! Emango dugu. Horixe emango dugula!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!